

BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUA. ARLO SOZIALA:

Elikagaien Bankuaren **ERAKUNDE ONURADUNA IZATEKO ESKABIDE EREDUA** (erakunde horien xedea da elikagaiak doan banatzea beharrezana dutenen artean).

1. **Harremanetarako datuak:** izena, helbide osoa, telefonoak, helbide elektronikoa, webgunea...
2. **Erakundearen deskribapen** laburra: zer helburu duen eta zertan diharduen.
3. Elikagaiak **jasoko dituztenen taldea:** deskribapena eta kopurua.
4. Giza **baliabideak**, baliabide materialak eta baliabide ekonomikoak, eta, zehazkiago, elikagaiak banatzeari dagozkionak: garraioa, biltegiatzea eta banaketa egiteko logistika.

Aukeran, eskabidea posta elektronikoz bidali, helbide honetara: social@banicali-biz.org. Bestela faxez, 94 449 41 01 zenbakira, edota posta arruntez, helbide honetara: BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUA. ARLO SOZIALA.

Cervantes etorbidea, 49 – 7. modulua, beheko solairua
25. posta-kutxa
48970 - BASAURI

Irizpideak, prozedurak eta erakundeen konpromisoak:

BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUAren (BEB) helburu nagusia da elikagaien xahutzearekin amaitzea eta alferrik galdu behar diren elikagaien etekina ateratzea, horren bidez goseari eta pobrezari aurre egiteko, elkartasuna bultzatzeko, eta giza-duintasunarekiko errespetua aldarrikatzeko.

Xede horiek aintzat hartuta, BEBk elikagaiak banatzen dizkie beharrezan dituztenei. Zehazkiago esanda, BEBk erakunde onuradunei helarazten dizkie elikagaiak, eta erakunde onuradunek, gero, elikagai horiek birbanatu egiten dituzte.

BEBk agiri hau EGIN du elikagaien banaketa hobeto egin ahal izateko; bertan jasotzen dira BEBk bere lana AURRERA ERAMATEKO jarraitutako irizpideak, prozesua edo prozedura, eta erakunde onuradunei eskatzen zaizkien konpromisoak.

ERAKUNDE ONURADUNEN IRIZPIDEAK, PROZEDURAK ETA KONPROMISOAK:

BIZKAIKO ELIKAGAIEN BANKUAK honako hauek hartuko ditu kontuan:

IRIZPIDEAK:

1.- BANAKETA EGITEA BEHARRIZANEN ETA DENBORAREN ARABERA.

Bizkaiko Elikagaien Bankuak (BEB, aurrerantzean), bere helburu eta printzipioei jarraituta, beharrezana dutenei elikagaiak banatzen dizkie, bakar-bakarrik, erakunde onuradunen bitartez.

Hartara, BEBk elikagaiak banatuko dizkie erakunde onuradunei, biltegian unean-unean daukanaren arabera. Horrez gain, BEBk aintzat hartuko du erakunde onuradun bakoitzak zenbat pertsonari birbanatu behar dizkien elikagaiak, eta pertsona horien ezaugarriak zeintzuk diren.

2.- LEGALKI ERATUTAKO ERAKUNDEAK, HELBURU SOZIALEKIN ETA IRABAZI-ASMORIK GABE.

Erakunde onuradunak, legalki eratutako erakunde juridikoak izan beharko dira, eta euren estatutuetan helburu soziala jaso beharko dute. Helburu sozial horrek, gainera, bat etorri behar du BEBren xedearekin, hau da, gizartean beharrezan handiena duten taldeei laguntzeko xedearekin.

BEBk ez dizkie elikagaiak hornitzen merkataritza-izaera eta irabazi-asmoa duten erakunde juridikoei.

3.- DIRU-SARRERA GUTXIEGI.

Diru-sarrerak dituzten erakundeek, elikagai-laguntza jaso ahal izango dute, baldintza hauek betetzen badituzte: batetik, elikagaiak ez dituzte aseko azken jasotzaileen elikagai-beharrizan guzti-guztiak; bestetik, erakundearen funtzionamenduaren kostu osoa ez da egon behar erakunde publiko edo pribatuek bermatuta. BEBk zehaztuko du erakunde bakoitzari dagokion elikagai-laguntzaren portzentajea, eta, horretarako, aintzat hartuko ditu ondoko hauek: erakundearen diru-sarrerak; erakunde horrek jaso dituen diru-laguntzak; eta erakundeak egiaztatzen dituen gastuak.

4.- ELKARTASUNAREN ALORREAN ESKARMENTUA.

Irizpide orokor gisa, beharrezkoa da erakunde onuradunek eskarmentua izatea gizarte-jardueretan, edota beharrizana dutenei elikagaiak banatzen. BEBk, hala eta guztiz, gizarte-lanetan hasten ari diren erakundeak ere onartuko ditu, gai direla eta elkartasunarekiko arduratsuak direla bermatzen badute.

5.- BALIABIDE ETA INSTALAZIO EGOKIAK.

Erakundeek, elikagaiak jasotzaileei egokiro helarazteko beharrezko diren giza baliabideak, bitartekoak eta instalazioak eduki beharko dituzte.

Ezinbestekoa da irizpide hauek guztiak betetzea, BEBren erakunde onuradun gisa aktibatua izateko.

Gizarte-intereseko erakunde batek eskatzen duenean BEBko erakunde onuradun gisa sartzea, elikagaiak banatzeko, honako urrats hauek jarraituko dira:

PROZEDURA:

6.- ESKABIDEA.

Erakundeak elikagaien eskabidea zuzenduko dio BEBri, idatziz. Bertan, bere xedeak, ekintzak, artatzen dituen pertsona-motak eta kopurua, eta erakundearen baliabideak jasoko ditu.

Eskabidea jasota, BEBk elkarrizketarako hitzordua jarriko du, erakundeen ordezkariekin.

7.- ELKARRIZKETA.

Elkarrizketan, BEBri buruzko informazioa emango zaie erakundearen arduradunei: funtzionamendua eta elkarlanerako balizko moduak.

Erakunde onuradunak, bestalde, bere xedeak eta funtzionamendua zehazkiago ezagutu ahal izateko datuak eta dokumentazioa ekarri beharko ditu, ebatzi ahal izateko ea BEBk eskatutako baldintzak betetzen dituen ala ez. Horrela, bada, ondoko hauen kopiak jasoko dira: estatutuak, jarduera-memoria eta memoria ekonomikoa, eta elikagaien jasotzaileen zerrenda. Horrekin batera, beharrezko jotzen den beste edozein dokumentu ere aurkeztu ahal izango da.

8.- BALORATZEA ETA ONESTEA.

Gizarte Arloko boluntarioek txostena egin eta gero, berau BEBren Zuzendaritza Batzordeari helaraziko zaio, onespina eman diezaion, eta erakundeak, erakunde onuraduna izendatua izan dadin. Erakundeak, hala ere, sei hileko probaldia izango du. Erakunde onuradun egoera, aldi-aldi berriztuko da, BEBk bisitaldia egin eta aldeko balorazioa eman eta gero.

Aparteko inguruabarrak ematen direnean salbu (oporraldiak, kanpaina bereziak, eta abar), BEBk konpromisoa hartzen du dagokion erakundeari idatziz jakinarazteko, hilabeteko epean, gutxi gorabehera, ea erakunde onuradun aintzatespena jaso duen ala ez.

Baiezkoan, elikagaiak hartzeko prozedurari buruzko informazioa jasoko du erakundeak, eta elikagai horiek jasotzen hasiko da hurrengo banatze-aldian.

Beste erakunde batzuekin izapideak egin behar badira (Europar Batasuna, Eusko Jaurilaritza...), epeak, izapideak eta prozedurak, erakunde horiek adierazitakoak izango dira.

Erakunde onuradunek, bestalde, honako hauek hartuko dituzte euren gain:

KONPROMISOAK:

9.- Elikagaien azken kontsumitzaileak eta elikadura-laguntzen jasotzaileak, berdina direla bermatzea, hau da: beharrizana duten pertsonak direla.

BEBk konpromiso bera du dohaintzak egiten dizkiotenekin (enpresak, erakundeak edota norbanakoak): elkartasunetik, eta zarrastelkeriaren kontra, dohaintzan emandako elikagaiak ez daitezela beste xede baterako erabili, eta elikagai horiek ez daitezela inolako eragiketatan salduak izan.

10.- Jasotako elikagaiak doan eta kontraprestaziorik gabe banatzea.

11.- Elikagai-laguntza jasotzeko beharra dutenen artean inolako diskriminaziorik ez egitea.

12.- Jasotako elikagaiak ez erabiltzea BEBren helburuen aurkako xedeetarako (adibidez: merkataritza-xedeetarako, beharrizanak ez dutenei emateko, eta abar).

- 13.- BEBtik hartzea beharriaz erantzuteko beharrezkoak diren elikagaiak, ez gehiago. Eta biltegiak ez edukitzea, BEBtik jaso eta gero, jarraian egindako bi entregaren artean igarotako denborari dagokiona baino elikagai-kopuru handiagoa.
- 14.- Elikadura-segurtasunari buruzko arauak betetzea, bereziki hotz-kateari dagokionez, bai kontserbatzerakoan, bai jasotzaileei banatzeko egin beharreko manipulazioan.
- 15.- Jasotako eta banatutako produktuen erregistroa egunean izatea Tener actualizado el registro de los productos recibidos y distribuidos. 3/3 orrialdea. Irizpideak, prozedurak eta erakundearen konpromisoak.
- 16.- Elikagaiak, adostutako epearen barruan erregistratzea, bereziki baliabideak erabilita, entrega egiten den puntutik (Basauriko biltegia, Mercabilbao, eta abar). Eta, elikagaiak jasotakoan, albaranak sinatzea.
- 17.- Elikagaien kopuruei buruzko erreklamaziorik ez egitea, laguntzak doakoak dira eta.
- 18.- Banaketarako erakundearen kasuan, banatu bakar-bakarrik hurbileko eragin-eremuan dituzten jasotzaileei (udal mugartea, auzoa, gurtza-zentroa, elkarteak, eta abar).
- 19.- Elikagaiak banatzeko zerbitzuari ez ematea "Elikagaien Bankua" izena, eta ez egitea BEBren izena kalte lezakeen egitaraurik, jarduera publikorik edo portaerarik.
- 20.- BEBk bisitak egiten dizkie erakundeek, aldian-aldian, elkarlanerako baldintzak eguneratzeko. Beharrezkoa denean, aurretiaz eskatuko du erakundeak prest eduki beharreko dokumentazioa, ELIKAGAIAK JASOTZEKO hitzarmena berritu ahal izateko, erakunde guztiei eskatutako baldintzen arabera.
- BEBk behatzaile moduan joan ahal izango du, erakunde onuradunek egindako banaketetara.
- 21.- BEBk esleituko ditu elikagaien kopuruak eta motak, dituen elikagaien arabera, jasotzaileen kopuruaren arabera, eta bere datu-basean ezarritako laguntza-propozizioaren arabera. Hori dela eta, urtean behin, gutxienez, eta bisita egiten den bakoitzean ere bai, erakunde onuradunek jasotzaileen zerrenda, eta erakundearen kontu-egoera bidali beharko diote BEBri.
- Datu pertsonalen babeserako legalki ezarritako eskubideak babeste aldera, jasotzaileei berariazko baimena eskatuko die erakundeak, BEBk haien datuak tratatu ahal izateko.
- 22.- Erakunde onuradunek jakinarazi beharko dute egoitza, harremanetarako telefonoak edota helbide elektronikoak aldatzen dituztenean, komunikazioa erraza izan dadin.
- 23.- Erakundeek gonbit egingo zaie, libreki, erantzukizunetik, eta ahal duten neurrian, euren boluntarioen, laguntzaileen eta erabiltzaileen artean langileak bidaltzeko BEBren jardueretara, eta, bereziki, elikagaiak jasotzeko kanpainetara.
- 24.- BEBk komunikazio-bideak izango ditu erakundeekin, hauen iradokizunak, kexak, eta abar, kudeatu eta horiei arreta eman ahal izateko. Izan ere, horrek BEBren eta erakunde onuradunen arteko elkarlana hobetuko du.
- 25.- Erakunde onuradunak bere gain hartutako konpromisoren bat betetzen ez badu, egokiak ez diren lokalak erabiltzen baditu, edota elikagaiak banatzen baditu jasotzaileen duintasunerako kaltegarria den modu batean, horrek ERAKUNDE ONURADUN IZAERA aldi baterako edo betiko galtzea ekar dezake, gertakarien kudeaketari eta ez betetzei buruzko prozeduran ezarritakoaren arabera.

Basauri, 2013ko maiatzaren 28a (Zuzendaritza Batzordeak onetsitako dokumentua)